

# EUSKERAZALEAK

## BILBO EUSKALDUNTZEN

Euskaldunak ba-daukaguz olako ames ausarti batzuk. Eta, txarrena, ames orreik egi biurtu ta bizitzan bete bear doguzala bururatzen jaku. Or asten gara geiago barik jo ta ke lanean.

Eta iñoz ames ori egi biurtzea lortzen dogu.

Olako ames bat da talde batentzat, beste talde batzuk be ba-dirala lankide jakin arren, Bilbo euskalduntzea. Eta lan orretan diardu jo ta ke gure EUSKERAZALEAK TALDEAK.

Orretarako dira ainbeste ikasleri emoten jakezan ikas-aldiak, irakasleak sortzeko egi-ten diran ekiñaldiak... orretarako ateraten diran ikasbideko liburu egokiak... orretarako laster argia ikusiko dauan gure egutegi barria... Orretarako KILI-KILI... ZER...

\* \* \*

## GASTEIZ EUSKALDUNTZEN

Eta Bilbo euskalduntzea ames utsa dala uste dauanak, zer esango dau Gasteiz be euskaldundu nai dabenen ekiñaldiak gogoratzean?

Ba-diardue ekiñaldi orreik be gogotsu, ba-dira an be EUSKERAZALEAK eta beste talde batzuk, naikoa isillean eta egokiro lan egiten, Aldundia be laguntzaille dabela.

\* \* \*

## ZELAN LORTU?

Baiña izan gaitez an ikusle argiak, ezarri dagiguz an oiñak lurrean. Olako uri aundi bat, osc-osoan erdeldun dana, euskaldundu lei ala ez?

Oso lan gaitxa iruditzen jaku, baiña erdeldun artean euskaldun batzuk izatea bai lortu leikela ta lortu bear dala. Orreik beti izango dira geroko euskalduntzearen oiñari ta azi.

Baiña Euskalerrri osoa euskalduntzeko bide bakar bat baiño ez dogu ikusten; Txiki-txikitatik asita, ikastetxe guztietan guztiai nai ta nai ez euskerea irakastea. Orrelan, urteak joan eta urteak etorri, erri guztiak ikasiko leuke eta laroge urte barru Euskalerrri guztiak jakingo leuke euskeraz berba egiten.

Guk ez dogula ikusiko? Egia da, baiña bide ori artzen ba'da, itxaropentsu ilgo gara eta itxaropenak bizitzan be lanerako poza emongo dauku.

\* \* \*

## AURKALARIAK

Erdera egiten dan lurraldeetan bizi diranak eginbide orren aurkako dira: Jentea bear-tzen ba'dozue, gorrotagarri biurtuko zaree! Euskotar jatorra izateko ez dago euskeraz itz egin bearrik! eta olakoak esaten dabez. Eta ori diñoen artean eskoletan erdere, gaztelerea, bearrrezkoa da, eta mailla askotan erbesteko izkuntza bat ikastea be bai, ezelako gorrotorik sortu barik.

Artu bei gure Gobernuak, jaurlaritzak, bide ori ezelako bildur barik, Israel'en artu zan lez eta euskotarrak, Euzkadi'n bizi garan guztiak, izan gaitez an euskaldun.

OLAZAR'tar Martin'ek